Lea-Artibai Mankomunitatearen Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileei familia zuzenbide alorrean aholkularitza juridikoa emateko zerbitzuaren kontrataziorako baldintza teknikoen plegua.

Familia Zuzenbideko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak aholkularitza legala ematen die Lea-Artibai Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileei.

Ez da ahaztu behar EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan udal eskumeneko zerbitzu eta prestazioen barne sailkatuta daudela besteak beste Informazio, Balorazio, Diagnostiko eta Orientazio Zerbitzua, Etxeko Laguntza Zerbitzua, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko eta Arreta Psikosozialerako Zerbitzua eta Zaintzaileei laguntzeko Zerbitzua. Hala, eta kontuan hartuz tokiko administrazioa dela herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea, beharrezkoa da Mankomunitateak zerbitzu hau ematea.

Azken 24 urteetan mota horretako zerbitzuak ematen lortutako esperientziak adierazten du emakumeak direla arreta juridiko pertsonalizatua eskatzen duten gehienak, baina era berean, eta geroz eta gehiago, beharrizan sozialak dituzten gizonak hurbiltzen ari dira aholkularitza juridikoa eskatzera.

Zerbitzu honen oinarria hauxe da: Bizilagunek orokorrean eta bereziki Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileek ez dute familia zuzenbideko ezagutza juridikorik, ezta gatazka egoerak prebenitu edo arintzeko baliabide juridiko posibleei buruzko ezagutzarik ere.

Lehenengoa.- Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea aholkularitza juridiko zerbitzua ematea da, eta familia zuzenbideko egoeretan dauden pertsonei eta kaleratze egoeretatik eratorritako inguruabarrak direla-eta gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua dutenei zuzenduta dago eta egoera penaletatik eratorritakoak ere.

Hala ere, indargabe geratuko dira Administrazio Klausula Berezien Pleguarekin bat ez datozen Baldintza Teknikoen Pleguetako Klausulak, edonola ere Administrazio Klausula Berezien Pleguak lehenetsiko direlarik.

Bigarrena .- Jasotzaileak

Zerbitzuak doako laguntza eskainiko die honakoei:

- Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar udalerrietako bizilagunei, beraien egoeran Gizarte Zerbitzuek esku hartu behar baldin badute, hau da, egoera hori gizarte langileak baloratu ondoren.
- Lea-Artibai Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako profesional tekniko guztiei, aholkularitza juridikoa eskeiniko die aipatu udalerrietako bizilagunen familia egoera desberdinetan laguntza eman ahal izateko.
- Zerbitzu honetatik kanpo geratuko dira BFAko nagusiei zuzendutako orientazio juridikoko erabiltzaileak. Kanpo geratuko dira baita ere urriaren 6ko Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren 2.7.5. Zerbitzuaren barneko BFAko erabiltzaileak.

Hirugarrena.- Zerbitzua eskuratzeko moduak

Gizarte langileak hala baloratzen duenean planteatutako eskakizuna/beharra Gizarte Zerbitzuetako Sistemaren xede barnean dagoela, eskari hori Familia Zerbitzu Juridikora bidaliko da, eta hitzordua emango zaio Lea-Artibai Mankomunitatean eta hala badagokio, profesional biek (gizarte langileak eta abokatuak) batera lan egingo dute pertsona horrekin.

Laugarrena.- Zerbitzuaren definizioa eta helburua

Familia Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren barne egongo dira honako prestazioak:

- Familia zuzenbide alorrean gai juridikoen inguruko informazioa eta aholkularitza ematea, banaketen, dibortzioen, guraso-ahalen, zaintza partekatuen, epaien egikaritzeen, adingabekoen babesaren, gazteen eta etxebizitzaren alorretan.

- Larrialdiko kasuetan, ezkondutako bikotearen banaketa prozedura hasi aurretiko behin-behineko neurrien idazketari buruzko informazioa eta orientazioa ematea.

- Gatazka egoerak saihestu edo arintzeko zerbitzu espezializatuak jasotzea erraztea.

- Abokaturik esleituta ez dagoen kasuetan eta esleipen hori gertatu ezin daitekeenean, epaitegietan aurkeztu beharreko salaketak eta/edo errekurtsoak idazteko informazioa eta orientazioa ematea.

- Doako Justiziari buruzko informazioa ematea eta hori izapidetzea.

- Bizilagunek beraien inguruan normaltasunez jardutea eragozten duten bestelako arazo juridikoei buruzko aholkularitza ematea, gizarte arazoak izan daitezkeenak, besteak beste kaleratzeak, familia zuzenbidearekin lotutako erreklamazio judizial eta administratiboak, prestazio ekonomikoak jasotzea, eta abar, eta nagusiki babes neurriak.

- Biktimak Lea-Artibai Mankomunitateko harrera pisuan sartzeko Sarbide Batzordean parte hartzea.

- Oinarrizko Babeseko sistema publikoan sartzeko bizilagunek duten eskubide eta baldintzei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.

- Gaitasun Juridikoaren arloko 8/2021 Lege berriarekin bat eginez, Desgaitasuna duten pertsonentzako, pertsonak eurek edota familiako kideek hasi dezaketen prozedurari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako gaitasun juridikoaz baliatzeko eta laguntzak emate horretan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egin behar izaten diren txostenak egitea.

- Gizarte esku hartzea jasotzen duten pertsonen zigor egoerei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.

- Bitartekaritza lanak egitea familiako gatazkaren parte diren pertsonen artean elkarrizketa errazteko eta konpromisoak sortzeko eta banaketa prozesuetan baterako erabakiak hartzea erraztea, adingabekoek, pertsona nagusiek, desgaitasuna dutenek eta abarrek behar duten arretari buruz familiakoek iritzi ezberdinak dituztenean.

Bosgarrena.- Zerbitzutik kanpo geratuko dira, honako egoera hauek,:

Berariaz kanpo geratuko dira Gizarte Zerbitzuetako Sistemaren esku hartze sozialaren xedearekin lotura zuzenik ez duten gaiak, eta interesatua Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsura bideratu beharko da, edo hala dagokionean, kontsumitzailearen arretarako udal bulegoetara eta antzekoetara.

Debekatuta egongo da baita ere norberekiko eta bestelako profesionaletara egindako bideratze interesatua, edonola ere bakarrik abokatuen zerrenda emango zaiolarik dagokion pertsonari, egokien jotzen duen profesionala modu librean aukeratu ahal izateko. Zerbitzuko erabiltzaileak ezingo ditu gai beragatik era pribatuan artatu.

Seigarrena.-Giza baliabideak eta baliabide materialak

Erakunde adjudikaziodunak kontratu honen xedea zuzentasunez garatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak eman beharko ditu, eta bere eskumenen barne egongo da langileen harreman juridikoa eta lanekoa, baita zerbitzua zuzentasunez eta eraginkortasunez emateko beharrezkoak diren profesionalen ordezkapenak egitea ere.

Zerbitzua zuzenean emango duen profesionala abokatu kolegiatua izan beharko da, eta bermatuta geratu beharko da zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan emateko gaitasuna duela.

Zazpigarrena.- Kontratistaren betebeharrak

Adjudikaziodunak honakoak egin beharko ditu eta Gizarte Zerbitzuetan dokumentazio hau aurkeztu beharko du eta adierazitako epeen barnean:

A – Programan arreta emandako pertsona bakoitzaren erregistro fitxa egitea eta aurkeztea, datu pertsonalak eta identifikazio datuak adieraziz. Hilero, hilabete horretan zehar arreta emandako pertsonen fitxak bidaliko dira, aurreko puntuan adierazitako egoera orriekin batera.

B- Bilerak erakundearekin: 6 hilabetero.

C- Sei hileroko laburpen txostena egitea, Gizarte Zerbitzuek hala eskatuta.

D- Garatutako jardueraren urteko memoria. Bertan jaso beharko dira egon diren kasuak, horien ezaugarriak, deribazioak, gorabeherak, aholkularitza juridikoko zerbitzuaren garapena eta bere ebaluazioa, baita ere helburuen balorazioa eta lortu nahi diren gainerakoak eta aurreikuspenak. Memoria hori hurrengo ekitaldiari dagokion martxoko lehenengo hamabostaldian aurkeztu beharko da.

E. Lea-Artibai Mankomunitateari erakunde publikoek eskatutako datu estatistikoak egitea.

F. Hilero zerbitzuan emandako orduen araberako faktura aurkeztu. Orduak jartzerakoan desberdindu egingo dira herritarren arretakoak eta teknikarien aholkularitzakoak.

Dokumentu eta agiri guztietan hizkera ez sexista erabiliko du, eta emakumeak diskriminatzen dituen irudi guztiak kenduko ditu.

Zortzigarrena.- Zerbitzua emateko baldintzak, lekua eta ordutegia

Familia Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua Gizarte Zerbitzuak kokatuta dauden Lea-Artibai Mankomunitatean emango da. Ekipamendu informatikoa, programak, legezko datu baseak, telefono mugikorra, materiala eta zerbitzua emateko behar den bitarteko eta baliabide guztiak adjudikaziodunaren kargura izango dira. Mankomunitatearen kargura izango dira, bakarrik, bulegoa eta wifia eskuragarri jartzea.

Adjudikaziodunak Mankomunitateko bulegoak zuzentasunez kudeatu eta erabili beharko ditu.

Zerbitzua zuzenean emango da Lea-Artibai Mankomunitateko egoitzan bertan, Patrokua Jauregian hain zuzen ere, urtean **guztira 576 zerbitzu-ordu** (gutxi gorabehera 12 ordu astean zehar) **11 hilabeteetan banatuta (urteko hilabete bat libre lagata)**, albo batera utzi gabe zerbitzuaren beharrak direla-eta egon daitezkeen aldaketak. Aipatu ordu horiek honela banatuta izango dira: 7 ordu astean herritarrei arreta zuzena emateko eta beste 5 ordu, Gizarte Zerbitzuetako profesional teknikoentzat, aholkularitza juridikoa emateko. Kontratuaren hasieran zerbitzua emateko egunak eta lekuak jasoko dituen egutegia ezarriko da.

Erabiltzaile bakoitzari arreta emateko eta erregistro fitxa egiteko denbora gehienez ere ordubete ingurukoa izango da. Orokorrean, zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzarekin urtean zehar sei esku hartze egingo dira gehienez ere. Esku hartzeen gehienezko kopurua zehazteko eskatzailearen beharrak, Gizarte Zerbitzuetako profesionalenak eta gainerako inguruabarrak hartuko dira kontuan, eta Lea-Artibai Mankomunitatearen oniritzia beharko da.

Adjudikaziodunak zerbitzua ematean une oro bete beharko ditu ezarritako egutegia eta ordutegiak. Zerbitzua ematen duen profesionalaren huts egiteak gehienez 15 egun jarraitukoak izango dira. Epea horretako orduak ezingo dira faktura zerbitzua ez delako eman eta epea igarota jarraian adjudikaziodunak beste profesional bat jarri beharko du zerbitzua bermatzeko, beti ere oinarri tekniko eta administratiboetan eskatutako baldintza guztiak bete dituela egiaztatu beharko duelarik.

Bederatzigarrena. Datuen konfidentzialtasuna

Enpresa adjudikaziodunak sekretu profesionala gordeko du kontratu honen indarraldian zehar erabili edo ezagutu dituen informazio, agiri edo gaiei dagokienez, eta ez ditu jakinaraziko eta ez ditu publiko egingo kontratua egikaritzearen ondorioz jasotako datuak, ezta kontratuaren indarraldia bukatutakoan ere.

Kontratu hau zuzentasunez gauzatzeko egindako lan guztiak konfidentzialak izango dira, eta enpresa adjudikaziodunak ezingo du beretzat edo hirugarrenentzat kontratatutako lanei buruzko informaziorik gorde edo eman, eta beraz, egin ahal duen guztia egingo du zerbitzua zuzentasunez gauzatzeko, hau da, Lea-Artibai Mankomunitateak eskuragarri jarritako prestazioari buruzko datuen konfidentzialtasuna eta ezkutuko izaera gordetzeko.

Hamargarrena. Kontratua egikaritzeko hizkuntza baldintzak

Arreta eta aholkularitza juridikoa zerbitzuaren erabiltzaileek aukeratutako hizkuntzan emango dira. Kontratu hau Euskararen egoera normalizatzeko oinarrizkoa den azaroaren 24ko 10/1982 Legean araututa dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikuluan ezarritako ofizialtasun bikoitzaren araubideari lotuta dago, baita berau garatzen duen

araubideari lotuta ere, eta beraz, zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak hizkuntza bien (euskararen eta gaztelaniaren) koofizialtasuna kontuan hartu beharko du, bere jarduera elebitasun irizpideei eta herritarren eskubideei lotuz.

Markina-Xemeinen, 2025ko urriaren 6an.